

Kidegoaren kodea: 590	Geografia eta Historia	Euskara	2021/06/20
-----------------------	------------------------	---------	------------

1- ARIKETA: HISTORIAKO AGIRI BATEN AZTERKETA ETA IRUZKINA

Egizu hurrengo agiriaren iruzkina beheko galderetan oinarrituz eta betiere testuari erreferentziak eginez.

Prim jeneralaren aldarria Cadizeko tropak berrikusi ondoren:

Atzo Gobernu despotiko baten presiopean zeunden. Gaur askatasunaren zutoihala mugitzen da zuen harresietan.

Topete brigadier adoretsuak zuzendutako Eskoadra Nazionalak lehenengo, eta goarnizioak eta senidetutako herriak ondoren, iraultza aldarrikatu dute eta Cadiz armetan dago. (...)

Espainiak, libreki deituta, bere etorkizuna erabakitzen duen unea iritsi bitartean, beharrezkoa da antolatzea borrokarekin jarraitzeko eta ez uzteko herritarrek autoritatez umezurtz.

Hori da, behin-behineko batzorde bat aukeratzearen arrazoiak: premiazko zerbitzuak artatzea eta herria zuzentzea [...] Bukatu dezagun mugimendu iraultzailearekin, esnatu sugarra eta mantendu dezagun herrietako ordena eta utz dezagun gure etorkizuna erabaki dezaten, sufragio unibertsalak lehenengo eta Gorte Konstituziogileek gero. Gaur iraultzaileak gara guztiok. Bihar, subiranotasunaren epai gorena obeditzen duten hiritar on eta duinak izango gara.

1868ko irailaren 19a


- A. **Sailkapena eta analisisia:** Egizu testuaren sailkapena, analisisia eta azaldu nor den egilea.
- B. **Aurrekariak:** Kokatu testua bere testuinguruan aurrekari urrunak eta hurbilak azalduz. Zer kritikatzin du testuak eta zergatik?
- C. **Unea bera:** Zeintzuk dira Prim jeneralaren helburuak testuaren arabera? Lortuko al dute hauek aurrera eramatea? Azaldu eta arrazoitu erantzuna.
- D. **Ondorengoak eta balorazioa:** Zein da testua idatzi zen garaiko bilakaera? Izango al du iraultzak etorkizunik? Azaldu zeintzuk izango diren testua idatzi osteko gertakari nagusiak eta egizu testuaren balorazioa.

Kidegoaren kodea: 590	Geografia eta Historia	Euskara	2021/06/20
-----------------------	------------------------	---------	------------

2- ARIKETA: ARTEAREN HISTORIAKO AGIRI BATEN AZTERKETA ETA IRUZKINA

Egizu hurrengo agiriaren iruzkina beheko galderetan oinarrituz.

A IRUDIA



B IRUDIA



A irudia: Tahulleko maisua, Tahulleko San Clement-eko absidea, Kataluniako Arte Nazionalaren Museoa, Bartzelona, Freskoa (620 x 360 x 180 cm)


B irudia: Giotto, Kristo Hilarenganako Atsekabea, Scrovegni kapera, Padua, Freskoa (200 cm x 185 cm)

- A. **Testuingurua:** azaldu laburki bi artelan hauen koordinatu historiko eta artistikoak eta eman egileen inguruko informazio esanguratsua.
- B. **Ikonografia:** azaldu gaia eta bere esanahia testuinguru bakoitzean.
- C. **Analisi formala:** konparatu bi artelanen alderdi estilistikoak bakoitzaren estiloa identifikatuz.
- D. **Balorazioa:** azaldu lanen garrantzia eta esanahia bere estiloari edo artearen historiari dagokionez.


3- ARIKETA: GEOGRAFIKO AGIRI BATEN AZTERKETA ETA IRUZKINA

Egizu agiriaren iruzkina beheko galderetan oinarrituz.

A GRAFIKOA



B GRAFIKOA



*Grafikoetako datuak hurrengo orrialdean kontsulta ditzakezu.

- Azaldu zer diren adin piramideak, nola antolatzen diren eta zeren inguruko informazioa ematen duten. Zer grafiko mota ageri dira agirian? Deskribatu eta konparatu grafikoak. Atera grafiko hauetako informazio esanguratsua eta adierazi munduko zein tokitan aurkitu ahal ditugun grafiko hauek edo antzekoak.
- Azaldu eta interpretatu grafikoetako datuak. Zer dela eta ematen dira grafikoaren arteko ezberdintasunak? Zeintzuk dira grafikoei dagozkien herrialdeen edo antzeko ereduak duten herrialdeen ezaugarri demografikoak? Zeintzuk dira ezaugarri hauen faktoreak eta arrazoiak?
- Zein eredu eta fase demografikori dagozkie grafikoak (bai Warren Thompson eta Kingsley Davisen ereduak eta baita azken teoria demografikoei jarraituz)? Arrazoiatu erantzuna laburki.
- Azaldu zein gizarte- eta ekonomia- arazori aurre egin behar dioten eredu demografiko hauek edo antzekoak dituzten herrialdeek eta zein politika proposatzen eta bultzatzen dituzten erakundeek hauei irtenbideak bilatzeko.

Kidegoaren kodea: 590	Geografia eta Historia	Euskara	2021/06/20
-----------------------	------------------------	---------	------------

	A GRAFIKOA			B GRAFIKOA	
	Gizonekoak	Emakumezkoak		Gizonezkoak	Emakumezkoak
100+	%0,0	%0,1	100+	%0,0	%0,0
95-99	%0,1	%0,3	95-99	%0,0	%0,0
90-94	%0,4	%1,0	90-94	%0,0	%0,0
85-89	%1,0	%1,9	85-89	%0,0	%0,0
80-84	%1,7	%2,5	80-84	%0,1	%0,1
75-79	%2,5	%3,1	75-79	%0,2	%0,2
70-74	%3,4	%3,8	70-74	%0,4	%0,4
65-69	%3,2	%3,4	65-69	%0,6	%0,7
60-64	%3,0	%3,0	60-64	%0,9	%0,9
55-59	%3,1	%3,1	55-59	%1,1	%1,2
50-54	%3,5	%3,4	50-54	%1,4	%1,5
45-49	%4,0	%3,9	45-49	%1,8	%1,8
40-44	%3,4	%3,3	40-44	%2,3	%2,3
35-39	%3,1	%3,0	35-39	%2,8	%2,7
30-34	%2,7	%2,6	30-34	%3,2	%3,1
25-29	%2,5	%2,4	25-29	%3,7	%3,6
20-24	%2,4	%2,3	20-24	%4,4	%4,3
15-19	%2,3	%2,2	15-19	%5,4	%5,2
10-14	%2,3	%2,1	10-14	%6,4	%6,1
5-9	%2,2	%2,1	5-9	%7,4	%7,1
0-4	%1,9	%1,8	0-4	%8,4	%8,0
Biztanle kopurua: 126.476.458			Biztanle kopurua: 206.139.587		